



Sagardogileek 2017ko uztaren heldutasunaren txostena aurkeztu eta sagarraren festa iragarri dute

📅 Ira 14, 2017 🌐 Ekitaldiak, Sagarra 💬 0 comments



2017ko sagardo sagarraren uzta sasoian gaudenez, Sagardoaren Lurraldeko sagardogileek XVII. Sagar Uzta 2017 sagarraren jaiaren ospakizunerako iragarritako jarduerak aurkeztu dituzte gaur Sagardoetxean. Gainera, aurten uzta historikoa izango dela iragartzen duen eta urtero gauzatzen den sagarraren heldutasunaren txostena aurkeztu dute.

Sagardoaren Lurraldeko sagardogile eta Fruitel-eko ordezkariak 2017ko sagardo sagarraren heldutasunaren txostena aurkeztu dute hamazazpigarren urtez. Iazko urtearekin alderatuta, sagarraren heldutasuna aurreratu egin dela eta sagardotegiak dagoeneko sagarrak bildu eta muztioa elaboratzen hasiak direla dira txostenean zehazten diren puntu garrantzitsuenak.

Bertako 14 sagar barietate aztertu ostean, azukre maila iazkoaren berdina dela azpimarratu dute, almidoiaren erregresioak azken 5 urtetako mailarik altuena aurkezten duen bitartean. Sagardoaren Lurraldeako sagar eta sagardo ekoizleek uzta oparoa izango dela azpimarratu dute, ekoizpen askoko sagastiekin.

Denboraldiko lehen muztioa

Uzta sasoiaren testuinguruan, Sagardoaren Lurraldeko ordezkariak 2017ko Sagar Uzta

Privacidad - Condiciones

jairako aurreikusitako egitaraua aurkeztu dute. Urte osoan zehar sagardoaren elaborazio lanetan egiten den lana baloreari jarri eta eta gure sagarrondo eta sagastien garrantzia azpimarratzeko, Sagardoaren Lurraldeak Sagar Uzta jaia antolatu du beste urte bat gehiagoz.

Irailaren 21etik 24ra bitartean jarduera ezberdinak gauzatuko dira: tailerrak, ibilbideak, pintxo-pote berezia, sagar postre lehiaketa... Egun nagusia irailaren 24an ospatuko da Astigarragako Foru enparantza. Bertan sagarraren azoka izango da, sagar eta muztio dastaketa, bertako baserrietako produktuen salmenta, etab. Gainera, urtero bezala, denboraldiko lehen muztioa egingo da bertaraturiko guztien artean "topa herrikoia" egiteko.

[Prentsa Dossiera PDF formatuan eskuratu](#)



Bilatzailea

	Bilatu
----------------------	--------

Kategoriak

[Agenda](#)

[Argitalpenak](#)

[Azokak](#)

[Berriak](#)

[Ekitaldiak](#)



[Erakusketak](#)[Esperientziak](#)[Formazioa](#)[Gastronomia](#)[Historia](#)[Kultura](#)[Lehiaketak](#)[Museoak](#)[Sagardoa](#)[Sagardotegiak](#)[Sagarra](#)[Sagastia](#)[Turismoa](#)

Artxiboak

Hautatu hilabetea ▼

¿ATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN
LURRALDEA**
el territorio de la sidra

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

[Zure plana erreserbatu](#)[Neurrira egindako esperientziak](#)

SAGARDOTEGIAK

[Sagardotegia erreserbatu](#)[Sagardotegia aukeratu](#)

SAGARDOETXEA

[Sagardoetxea – museoak](#)[Erakusketa eta bisita guneak](#)[Privacidad - Condiciones](#)

[Hautatutako ibilbideak](#)[Garraioa sagardotegietara](#)[Bisita motak](#)[Beste proposamenak hemendik gertu](#)[Sagardotegiaz goatzeko gomendioak](#)[Nola iritsi eta sarbideak](#)[Nola mugitu](#)[Tarifak eta ordutegiak](#)[Non lo egin](#)[Bisita erreserbatu](#)[Gidak eta informazio praktikoa](#)[Bisita birtuala](#)[Dokumentazio Zentroa](#)[SAGARDO FORUM](#)[AGENDA](#)[BLOGA](#)[HEDAPENA](#)[Informazio orokorra](#)[Boletina](#)[Argazkiak](#)[Buletinera harpidetza](#)[Hitzaldiak](#)[Sare sozialak](#)

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua
LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#)[PROIEKTUAK](#)[AKORDIOAK](#)[KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)